

Egonaldiaren laburpena – Buenos Aires, Argentina

Kerman Salazar naiz, Industria Kimikaren Ingeniaritzako ikaslea, eta laugarren mailako lehen lauhilekoa egiten egon naiz 2023-2024 ikasturtean Universidad de Buenos Airesen (UBA). Hemen, nire egonaldiaren inguruan zenbait gauza kontatuko ditut eta joan baino lehen jakitea gustatuko litzaizkidakeen beste batzuk.

BUENOS AIRES

Bueno Aires giro handiko hiria da, bizitzaz betea, eta hiri europear baten antz handia dauka XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran egon zen inmigrante espainiar eta italiarren influentziaren ondorioz. Eraikin historiko oso politak daude, gaur egun dagoeneko apur bat kaltetuak, modernoagoekin nahastuta. Orokorrean berria dena ez da oso polita eta nahiko kutrea izan daiteke, baina kutsu berezia ematen dio horrek hiriari. Ikusteko asko dago: Microcentro, La Boca eta Caminito, Palermo eta Recoleta paseatzeko, Puerto Madero... eta hori bakarrik hirian. Inguruan egiteko beste asko dago, adibidez, La Plata edo Tigre, ordu betera bakarrik.

Horretaz gain, eskaintza handia dago edozein zentzutan: tabernak, diskotekak, kultura, gastronomia, scape roomak, taberna tematizatuak, jaiak... Mota guztitako diskotekak topatu ahal dituzu: tekno, pop, reggaetón, BRESH moduko jaiak, eta argentinoen gustokoena den cachenguea (bertako musika, kumbia eta kuartetoea batez ere). Bakarrik zerbait hartzeko ere taberna, kafetegi eta garagardotegi artesanalak daude (zerbeza oso goxoa da). Gainera, hiriko gobernuak gauza asko antolatzen ditu, adibidez Día de los Museos, Día del Helado, festival Ciudad Emergente... eta horretaz gain mila kontzertu eta festibal ugari daude (Lollapalooza, Primavera Sound...). Museo on asko daude, MALBA, Museo Nacional de Bellas Artes, Museo de Arte Decorativo, Museo Histórico Nacional... eta txikiak diren beste horrenbeste. Hori bai, ez ahaztu **beti** topatuko duzula egiteko zerbait, berdin du asteko ze egun izan.

ETXEBIZITZA

Buenos Airesen auzo asko daude, baina hiri guztietan bezala, batzuk besteak baino seguruagoak dira. Ni Palermon egon nintzen bizitzen pisu baten, Recoletarekin batera seguruena zela esan zidatelako. Ikasle atzerritar gehienak bi auzo hauetan alokatzen dute pisua, baina nire ustez Palermo (Buenos Aireseko zona alternatibo-diruduna da, Malasaña modukoa baina hobea) hobeto dago orokorrean jendea gazteagoa baita eta giro hobea dagoelako, eta Palermo barruan, Soho iruditzen zait zonarik onena. Bestela, Palermo Hollywood ere oso ondo dago. Badakit ikasle batzuk San Telmon gelditzen direla ere han etxe osoak alokatzen direlako. 8 pertsona inguruko etxe baaten bizi nahi baduzu, hor begiratu dezakezu. Ikasle-egoitzen inguruan ez dakit ezer.

Pisu on bat aurkitzea ez da zaila baina erreza ere ez, beraz denboraz begiratzeko hasia da gomendagarria. Prezio orientatibo bat nahi baduzue, nik 300 euro baino gutxiago ordaintzen nuen hilerro. Webgune hauetan begiratu nuen nik:

- <https://www.argenprop.com/>
- <https://www.zonaprop.com.ar/>

GARRAIOA

Hiritik ibiltzeko autobusak eta lurrazpikoa daude; zerbitzua nahiko ona da eta ni egon naizen bitartean oso merkea, baina orain prezioa igo da. Hala ere, Europako hiriekin konparatuta nahiko merkea izaten jarraitzen du. Autobusean kontuz ibili behar da telefonoarekin lapurketak ikustea ez delako arraroa, baina ateratzen ez baduzu ez dago arazorik. Lurrazpikoan ez dago horrelakorik eta hiriak daukan trafikoa ekiditzen duzu ere.

UNIBERTSITATEA

Ingeniaritza fakultatea (FIUBA) hiru eraikinetan dago bananduta, hirurak elkarrengandik nahiko urrun, eta bertan egiten dituzun ikasgaien arabera, eraikin batera edo bestera joan beharko zara:

- Av. Paseo Colón
- Las Heras
- Ciudad Universitaria (ez naiz inoiz egon)

Esan didatenez, horko lehen eta bigarren mailako ikasgaiak Av. Paseo Colónen egiten dituzte orokorrean, Las Herasen ingeniaritza industrialarekin zerikusia daukatena eta Ciudad Universitariaren ingeniaritza kimikoari erlazionatuta daudenak eta hizkuntzak. Nire kasuan, ikasgai honek egin nituen eta eraikin hauetan:

- Av. Paseo Colón: Gestión Ambiental
- Las Heras: Organización Industrial III, Estructuras y Procesos Organizacionales, Idioma Francés

Ez ziren hasiera batean learning agreementean sartu nituenak, baina lauhilekoa hasi baino lehen horko koordinatzaileak zerrenda bat bidali zigun egin ahal genituen ikasgaiekin eta hortik kanpo gelditzen zirenak ezin ziren egin. Dena dela, bi aste euki genituen ikasgai berriak erabakitzeko eta ordutegia prestatzeko. Ordutegia prestatzea beharrezkoa da balitekelako bi ikasgaialdi berean edo eraikin desberdinetan izatea. Klase gehienak arrastietan dira, normalean 16tatik 22tara.

Buenos Aires hiri oso handia da eta trafiko handikoa, beraz pandemian klaseak online ematen hasi zirenetik ohitura hori mandendu dute eta ikasgai gehienetan aste bat online eta hurrengoa presentziala izaten da.

Bertan jaso dudana hezkuntza **kalitate oso onekoa** dela iruditzen zait; izan ere, UBA Hego-Amerikako unibertsitate onenatariko bat kontsideratzen da. Irakasle gehienek klase emateaz gain beste lan bat daukate (soldatak ez direlako oso altuak), eta eduki teorikoaz gain, euren lan-munduko esperientzia kontatzen dute sarritan. Hemen azpimarratu behar da nik enpresari buruzko 9 kredituko bi ikasgai egin ditudala. Klaseak emateko era nik aurretik euki dudanaren desberdina izan da, batez ere ikasleen jarreragaitik, jarrera oso aktiboa daukatelako klaseko dinamikan. Han unibertsitatera doazen ikasleek asko baliosten dute euren kalitatezko eta doako hezkuntza, apur bat ere herrialdearen egoeraz kontziente direlako eta ikastea asko komeni zaielako, beraz ahalik eta gehien parte hartzera eta denbora aprobetxatzera joaten dira. Euretako askok ere lan egiten dute behar ekonomikoagatik, beraz lan-munduaz asko dakite eta klaseetan ikusten da.

Hala ere eta zoritxarrez, dauzkaten baliabideak eta instalazioak ez dira onenak egia esan. Unibertsitate hau publikoa da; hau da, estatuaren diruaz bizi da eta azken garaian Argentina ez dago ekonomikoki bere momenturik onenean krisi handi batean sartuta dagoelako. Gainera, orain Javier Milei da presidentea, eta hurrengo urteetan unibertsitateak jasoko duen kapitala nahiko murriztuko da. Hori bai, eraikinak kanpotik oso politak dira, eraiki zirenean Argentinaren egoera desberdina den-eta.

Nire esperientzia FIUBAn oso ona izan da, asko ikasi dudala ikusten dudalako eta ikasle zein irakasleek asko lagundu didatelako. Klasekideen hurbiltasunak eta laguntzeko nahiak dena errezagoa izatea egin du.

TRAMITEAK

Hego-Amerikako herrialdeetara **sartzeko** ez da bisarik behar pasaporte espainiarra badaukazu, baina hiru hilabeterako izten dizute sartzen bakarrik eta gainera herrialde horretatik **irtengo duzula bermatzen duen bidai txartel** bat eskatzen dizute batzutan. Hori bidaiatzeko oso ondo dago. Niri eskatu zidaten Argentinara sartu baino lehen, baina beste ezagun batzuri ez.

Badakit persona batzuek baldintza hau aprobetxatu zutela Argentinako bisa ez ordaintzeko, eta hiru hilabete hoiek pasatu baino lehen Uruguaira edo beste herrialde batera joaten zirela. Dena dela, nik ez dut hau gomendatzen dena errezagoa izango delako bisa eukiz gero. Beraz, hiru aukera daude hemen:

- Bisa Euskal Herrian ateratzea (160 euro)
- Bisa Argentinan bertan ateratzea (160 euro)
- Erresidentzia-baimena Argentinan bertan (merke)

Nire kasuan, FIUBAn, horko koordinatzaileak ez zidan bisa eskatzeko aukera eman; izan ere, dokumentu bat behar nuen bisa eskatzeko eta koordinatzaileak bidaliko ez zidala esan zidan. Horren orde, erresidentzia-baimena eskatzeko esan zida, UBA unibertsitate publikoa izanda hori zelako bete beharreko prozedura. Hor bertan atera nuen eta ez zen prozesu oso zaila ez luzea izan.

Egia esan, FIUBAko koordinatzailearen lanarekin ez naiz oso pozik egon. Berarekin bulegoan egotea ia ezinezkoa zen ez zegoelako bere lan orduetan eta mail mezuetara oso berandu erantzuten zuen. Gainera, notak ia 4 hilabete beranduago bidali dizkit eta konbalidazioak kurtso amaieratik hurbil egin ditut.

Dena dela, azken arrazoi hau ez da nahikoa Argentinara etortzea ez gomendatzeko. Hemengo jendea oso atsegina da, herrialdeak ikusteko mila mirari natural eta esperientzia ahaztezin eskeintzen ditu eta kultura oso aberatsa dauka. Informazioa baliogarria izatea espero dut, eta Buenos Airesen edo Argentinaren inguruan zerbait jakin nahi izanez gero, idatzidazue korreo honetara eta gehiago komentatuko dizuet.

ksalazar002@ikasle.ehu.eus

Kerman Salazar, 2024ko maiatzaren 7an.